



- Ikasturte berria, arazo zaharrak... eta gehiago • 2008ko Aurrekontuak
- Orduen murrizketa Heziketa Fisikoan • AZPkoen Txokoa • Azaroak 25
 - Memoria historikoa lantzeko material didaktikoa • Agenda Soziala • OPE 2007
 - Berriak: Salvadorrera Brigada eta Curriculum berria • Boletinak

IKASTURTE BERRIA, ARAZO ZAHARRAK... ETA GEHIAGO

Gure gaiak dira

aurkibidea

Irakaskuntza Pribatua

Ikasturte berria, arazo zaharrak...eta gehiago 2

2008ko aurrekontuak: ezer ere ez 3

Heziketa Fisikoan ordu murrizketarik ez 4

AZPkoen txokoa 4

Azaroak 25 5

Memoria historikoa 5

Agenda Soziala 6

J oan den irailean, 2007-2008 ikasturtea hasi zen. Beste ikasturte bat irakastorduetan homologaziorik gabe, ezta DBH1-DBH2etan soldaten berdintzerik ere, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak soldata ziztrinak dituen bitartean. Hauek, sektoreko kalte endemikoak dira. Harrituta gaude ikusten dugunean *Kristau Eskolak* Administrazioarekin ustezko negoziazioa ezerean gelditu dela (gutxienez, 2008ko aurrekontuetan, ez dago ildo horretan doan ezer) Gehiengo sindikala duen erakundeak ere ez du ematen bide horretan lidergoari eusteko prest dagoenik.

Elkarrizketa soziala baztertzen duen Administrazio autista baten aurrean, egoera latza desblokeatzeko antolakuntza eta mobilizazioa besterik ez dugu. STEE-EILASek, eremu guztietan, sektoreko langileen interesak defendatzen jarraituko du, ez garelako beste kausa baten bahituak.

Hitzarmena behar bezala zehaztu gabe sinatu zen. STEE-EILAS-i mina ematen dio, batez ere, patronalek, irakasleen asteko lanaldia arautzeko konpromisoa bete ez izanak. Arautze horrek asteko 32 ordu tan eta funtzioen onarpenean oinarritu behar zuen. Aurten ez dugu errepikatuko sineskortasun bekatu hori.

Negoizazio presatsua izan zen, eta sinatutako gai asko zehaztu gabe geratu ziren. Gaurkoz, jarraitasun sariari eta urte sabatikoari buruz zalantza ugari dago eta, horregatik, Interpretatzeko Bitariko Batzordearen bilera eskatu dugu. Oraindik, Hezkuntza-laguntzako espezialistentzako 365 egun baino gutxiagoko kontratuak badaude... Gai hauek, antza Patronalei ez zaizkie interesatzen.

Ikastetxeek Hitzarmenaren akordioak ez betetzeak ere kezkatzen gaitu, adibidez, 58 urte baino gehiago dituen langileen irakastorduaren murrizketa edo haur hezkuntzako jolasaldiaren eskola-ordua izaerari gagozkiolarik. Beren profesionalak egoera estuan jartzen dituzte eta hauek, beraien eskubideak judizialki erreklamatzeko orduan zalantzak dituzte.

Baina lan esparrua gaindituta, badaude aurten zehaztuko diren beste eztabaidagai batzuk, sektorean ondorio zuzenak izango dituztenak. Nahiz eta hitzarmena sinatuta izan, EAEko Araututako irakaskuntzako ikastetxe pribatuetan lan egiten dugunok ezin dugu lasai egon. Aldaketak datoz eta aurreratu beharrean, daukagunaren zati bat ez galtzeko adi egon behar dugu. Curriculumaren ezarpenak, Eskola mapa berriak edota Eredu Bakarrak nolako eragina izango dute gure ikastetxeetan? Lan postuak galduko al dira? Eztabaidagai hau esparru batean negoziatuko al da? Galdera asko erantzunik gabe.★

2008ko EAeko Aurrekontuen Proiektua:

Ezer ere ez

Joan den urriak 30ean, 2008. urterako EAeko aurrekontuen proiektua aurkeztu zen. Bere lerro orokorretan, proiektuak beste urtetan jarritako lerro berberak jarraitzen ditu, hezkuntza gastu publikorako urritasun endemikoarekin. Hezkuntzako aurrekontua 2.424,3 milioi eurokoa da eta joan den urtekoekin konparatuta %7,6raino igotzen da, gobernuko aurrekontu orokorrak %13,72an igotzen den bitartean. Hezkuntzak tartaren bigarren zati handiena eramaten badu ere –aurrekontuaren %24,39a– bere pisua berriz gutxitzen da (iaz baino %1,38a gutxiago) eta horrek aspaldiko egoerara eramaten gaitu. 2002. urteko %27,15etik (urterik hoberena hezkuntza gasturako) urruntzen goazelarik. Eta hau dena, eskola aldaketa eta exigentzi asko jasaten ari den testuinguru batean: curriculum berria, hizkuntza eredu berria, eskola mapa, inmigrazio erronka, HPa, eskola-porrota geratzeko aniztasunari arreta, bizikidetzak, irudi profesional berriak... aurrekontua ez da igotzen sistemak dituen benetako beharrak asetzeko adina.

Bestalde, Hezkuntza Sailak irudiari erreparatuta bizia da eta bere jokabideak arintasuna, zehaztasun eza eta nagusikerietaz oinarritzen dira. Kontsensuko eredu berria asmatu dute. Honekin, Hezkuntza eragileak proiektu desberdinetan (curriculum, eredu bakarra, ikasleen eskubide eta betebeharrak, eskola mapa...) parte hartzeko deituta gaude iritzi publikoari azken emaitza parte hartze honen ondorioa dela esateko. Gehienetan, ekarpenak atzera botatzen dira, hauek defendatzeko foro batean parte hartzeko aukerarik izan gabe. Tontxu Camposen Sailaren portaerari mozorro kentzeko ordua delakoan gaude.

Araututako Hezkuntzari dagokionez, betiko kontua. Ikastetxeetako benetako beharretan eta lan egiten dugunon lan baldintzetan islatzen den politika zikoitza.

Moduluak soldataren igoera minimoei ekiteko igo dira, administrazio eta zerbitzuen langileak ahaztuta. Lansariak parekatzeko ez dago partidarik, ezta DBH1ko langileentzat ere, hauek konprometitutako %95etik oso urrun badaude ere.

530 milioi euro, Haur eta Lehen Hezkuntzako 3.604, Hezkuntza bereziko 518 eta Bigarren Hezkuntzako 3.503 gelak ituntzeko erabiliko dira. Ikastetxe pribatuaren %98a baino gehiago ituntzen jarraitzen dute, diru publikoa –esparru pribatuetara joaten denean– ekitate eta kohesio sozialerako gastatu behar dela zaindu gabe. Kontzertazioarekin egiten duten “Kafea denontzat” hau eskatzen zaien eginkizun soziala betetzen duten hainbat ikastetxeak diskriminatzen ditu.

Iazko akordioaren ondorioz, Hezkuntza Laguntzako Espezialistak kontratatzeko dirulaguntzako partida igotzen da (8,6 m.), nahiz eta 0-3 zikloko finantziarioa, gehien igotzen dena izan izan 31.1 milioekin. Beste partida adierazgarriak, Iraleko liberazioak (5,7m.), hizkuntza-indargarriaren irakasleak kontratatzeko dirulaguntza (5,7 m.), normalizazio proiektuetarako (2,6 m.) edo jubilatzekeo plana (1,9 m.) dira.

Azkenik, handik eta hemendik sortzen ari dira dekretuak hamaika kontzeptuengatik dirulaguntzat banatzeko, kontzeptu hauetako asko ohiko diru-laguntzaren bidez (itunak) erregulagarriak direlarik. Honek bi ondorio ditu: alde batetik, partida hauen kontrol eraginkorra oztopatzen da, aurrekontuen zehar banatuta daudelako eta batzuetan, ikastetxe guztientzat (publikoak eta pribatuak) zuzenduta daude eta bestetan, itundutakoentzat bakarrik; bestalde, dekretu hauek, papurrak banatu besterik ez dute egiten, benetako beharren arabera egin beharrean, aurrekontuak dagoen diruaren arabera egiten direlako. . ★

2008. URTERAKO KONTZERTAZIO MODULUAREN IGOERA (PROIEKTUA)

	HH	LH	DBH 1	DBH 2	Batx.
Irakasleak	4,98	5	5,42	5,50	5,50
Ez irakasleak	3	3	3	3	3
Igoera orokorra	4,69	5,19	6,35	6,41	6,36

AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA IKUSEZINTASUNAK ERE ERASOTZEN GAITU

Ikusezintasuna giza zientziek honela definitzen dute: baztertzeko era bat, hau da giza talde baten presentzia ezabatzea eramaten duen prozedura. Ikusezintasun prozedurak menpekotasun harremanak jasotzen dituzten taldeek pairatzen dute, besteak beste emakumeok.

STEE-EILASekoek aurtengo azaroaren 25ean gure gertuko historiari erreferentzia egin nahi diogu. Azken bolada honetan asko hitz egin da "Memoria historikoaren legea"ri buruz, ahalegin handiak egin dira diktadura garaian egindako injustiziei errekonozimendu historikoa emateko.

Guk, egun seinalatu honetan garai hartako emakumeak gogoratu nahi ditugu. Ahaztuen artean ahaztuenak izan arren, emakumeek, oroimenaren militante bihurtuz, norberaren edota besteen bizipenak gogoratzeko eta transmititzeko konpromisoa hartu zuten: kartzela, bortxaketak, jipoiak, seme-alaben "desagerpenak"...

Beste aldetik, ez dugu ahaztu behar Errepublikarekin lortutako emakumeen eskubideak diktadurarekin galdu egin zirela, hala nola ezkontza zibila, dibortzioa, abortua,...

Ikasturte honetan proposatzen ditugun jarduerak ikuspegi desberdinetatik landu daitezke: historia, politika, giza-eskubide, feminista, mediatiko, gerra..., eta batez ere emakumeek jokatu zuten paperaren analisiaren aldetik. Jarduera hauekin guztiekin ikusezintasunetik atera nahi ditugu Las trece rosas, Teresa, Manolita, Nieves... gure amamak, eta amak, errepublikako maistra errepresaliatuak, "gorriak" izateagatik edota haien gurasoak, senarrak edota seme-alabak zigortzeko mota guztietako zigorrak eta apalkeriak jaso zituzten guztiak.

Aurreko ikasturteetan bezala kartela eta unitate didaktikoa ikastetxe guztietara bidaliko ditugu, egoitzetan eta gure web orrian ere aurkitu ahal izango dituzue.

Azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren ekintzak (kontzentrazioak, manifestazioak, hitzaldiak etab) zehaztu gabe daude, beraz horien berri izaten dugunean postaz eta web orriaren bitartez jakinaraziko dizuegu parte har dezazuen animatuz. ★



Memoria historikoa lantzeko material didaktikoa.

Bortxazko lanak diktadura frankistan liburua eta Francoren esklaboak Pirinioetan DVDa heldu berri zaizkigu. Azken urteotan egindako ikerketa nagusienetako gehienak biltzen dira: preso eta prisioneroen egoera ez ezik, errepresioak haien senideengan eragindako ondorioak ere. Aldi berean, esklabotza sare hau XX. Mendeko Europako erregimen faxisten testuinguruan ere kokatzen da. Denbora luze isilpean egon den gure historiaren errealitate bat ezagutzera emateaz gain, faxismoaren kontra borrokatzeagatik zigortuak izandako pertsonen omenaldia eta esker ona eman nahi dira. Materiala lortzeko jo ezazu:

geronimouztriz.idazkaritza@hotmail.com
(Zuriñerekin kontaktatzeko), edota
www.esclavitudbajoelfranquismo.org. ★

AGENDA SOZIALA

GLOBALIZAZIOAREN KONTRAKO MUGIMENDUAREN BERRI

Hurrengo Europako Foro Sozialaren (EFS) Prestakuntza-Asanblada Estokolmon bildu zen irailaren 14-16 bitartean, 20 herrialdeko 60 erakunde ordezkatzen zuten 165 partaiderekin (horien artean, Anitza euskal taldea, non gure sindikatuak parte hartzen duen). Hurrengo EFS 2008ko azaroaren 18 eta 21 bitartean, Suediako Malmö hiri txikian ospatzea onartu zen, gainontzeko hiri nordikoak baino askoz merkeagoa delako eta Foroarekin kolaboratzea erabaki duelako. Helburu bezala, Ekialdeko Europako erakundearen parte hartze altuena izatea dugu, eta horretarako aurrekontuetan elkartasun kopuru zehatza jarri da. Bi web gune abiaraziko dira: www.fes-esf.org, prestakuntza-eztabaidarako dedikatua, eta www.esf2008.org, bereziki informatiboa eta urte bukaeran irekiko dena mintegien inskripzioarako.

Asteburuan, halaber, Europako erakunde eta mugimenduen lan sareen bilerak ere izan ziren (gerra, hezkuntza, lana eta globalizazioa, zerbitzu publikoak...). Euren akordio eta lan proposamenen artean, bi aipatuko ditugu: Irakeko okupazioaren kontrako nazioarteko deialdia 2008ko martxoaren 15erako, eta estatu europar ezberdinetan irakaskuntza publikoak bizi duen egoerari buruzko dokumentuaren elaborazioa, Bruselako Parlamentuan abenduaren 5 eta 6an izango den Zerbitzu Publikoen inguruko Foroan aurkezteko asmoz.

Azkenik, asanbladak onartu zuen Europako mugimendu eta erakunde sozialei zuzendutako gutun bat, 2008ko urtarrilaren 26ko Ekintza Globalaren eraikuntzan aktiboki konprometitzeko gonbidatzeko asmoz. Berau gure web gunean irakur dezakezu, www.stee-eilas.org, non gai hauen guztien inguruan informazio gehiago izango duzun. ★

LEP - OPE STEE-EILAS EZ DAGO ADOS BIGARREN HEZKUNTZAKO LAN ESKAINITZA PUBLIKOAREN DEIALDI HONEKIN

Akordiorik gabe, azaro aldera aterako du deialdia Hezkuntza Sailak. Ez gaude ados eskainitako lanpostu kopuruarekin (614) ezta ezarritako hizkuntza eskakizunekin ere: %10 HE1ekoa eta %90 HE2koa.

Ez zaio irakasle interinoen egonkortasunaren arazoari erantzunik ematen, ezta hezkuntza sistemaren euskalduntzeari. Oposaketak ez dira irakasleen egonkortasuna bermatzeko bide bakarra. Zergatik esleitu ziren irailean 1634 lanpostu eta 614 baino ez dira eskaintzen orain? Zergatik hautsi zuten Egonkortasun Akordioa, 1500 langileei lanpostu finkoa bermatzen ziena, oposaketetan funtzionario izaera lortu ezean?

Eskainitako plaza kopuruarekin ezinezkoa da lan-egonkortasuna bermatzea!

Esan dezala behingoz administrazioak zein den arazoa eskainitako lanpostu kopurua ez handitzeko! Arduragabekeria da euskara ezagutza-maila nahikoa ez duten funtzionarioen kopurua handitzea. Hezkuntza sistemak oraingo eta etorkizuneko eskaerei aurre egiteko irakasle elebidunak behar ditu. Hezkuntza Sailburuak berak proposatutako hizkuntza ereduen birmoldaketa, horren erakusgarri bat besterik ez da.

Irakasle elebidunak, bigarren hizkuntz eskakizuna dutenak, bietako edozein hizkuntzatan irakasteko aukera dute eta ikastetxeetako dinamika euskaraz garatzeko bermea ematen dute. Hizkuntza gaitasun egokia ez dutenek, ez. Begi onez ikusten dugu plaza kopurua 550tik 614ra igotzea, Hezkuntza Sailak eta CCOOK sinatutakoa hobetzen baitu, baina oraindik gutxiegi dira!

STEE-EILASek gutxienez 1000 plaza ateratzeko eskaria egin zuen Egonkortasun Konpromisoa mantenduz. ★

berriak

Eilastasuna

2007ko Brigada. El Salvador

Eilastasanak, Sindikatuko **foro solidarioak**, urte batzuk daramatza El Salvadorreko landa inguruko garapenerako erakundea den CRIPDESein lanean. Lehengo urtean, Lorena bere lehendakariak bisita egin zigun eta beraien herrialdera brigada bat antolatzeko iradokizuna bota zuen.

2007ko uztailean, 11 pertsoez osatutako eta sindikatuak koordinatutako taldeak, iradokizun hori jaso eta Ertamerikara bidaiatu egin zuen.

Han aurrera eraman beharreko egitarauak bi atal zituen: alde batetik bertako erakundeekin bilerak egitea (sindikatuak, Hezkuntza ministerioarekin, erakunde feministekin edo mugimendu herrikoiekin); eta bestetik, bertako komunitateetan elkarbizitza ezagutzea eta ikastetxeetan lan egitea. Azken egunak Chalatenangoko gazteentzako hezkuntza proiektu interesgarri bat, TNT Teatro, ezagutzeko erabili ziren.

Baina gure egonaldia benetan markatu duena CRIPDESeko zuzendaritza taldearen atxilotze zakarra izan da, beraien artean Lorena Martinez, uraren deszentralizazioaren legearen aurka Suchitoton egin behar zen manifestazio batera zihoazela. Une hauetan terrorismoaren aurkako legea aplikatuz epaituak izateko zain daude. Ondoren jazotako gertakari horien, torturen eta epaiketaren jarraipena egitearen ardura zuen Salvador Sanchez kazetariaren heriotzak, El Salvadorreko herria bizitzen ari den askatasun falta eta errepresioa islatzen du. Aurreko gatazka armatuari gero eta hurbilagoak hain zuzen ere.

Hunkitu gaituen esperientzia izan da eta hurrengo urtean edo eta urteetan errepikatzeak mereziko duela ziur gaude.

CURRICULUM BERRIA ONARTUA

2007ko urriaren 16ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen Curriculum berria arautzen duen dekretua. Zirriborroak izan dituen aldaketak dekretua argitaratzean ezagutuko ditugu, orain arteko prozesuaz Hezkuntza Sailak eman duen informazioa hutsaren hurrengo baita. (Pentsatu nahi dugu oraingoan euskarazko bertsioa ere prest izango zutela.) Halere, ez deritzogu oso serio denik ikasturtea hasi eta bi hilabetera horrela ibiltzea.

Ekaina aldera egin genuen hasierako balorazioan sentsazio gazi-goaz hitz egiten genuen. Ondorengo egunetan plazaratuko dugu geure iritzia, sakon eta denboraz aztertu ondoren.

Edozein modutan, benetan salagarria da formazioarekin egiten ari direna. Onartezina da oraindik ez ezagutzea zein izango den formazio plana, nola burutuko den, gaiak, epeak... Nonbait oso gordea dute. Ala ez dute? ★

Eta ba dator eskola mapa!

Joan den urriaren 30an Legebiltzarrean aurkeztu zituen **Tontxo Camposek** eskola mapa berria egiteko irizpideei buruzko proposamena. Bertan ikasturte honetan zehar egingo den eskola mapa berriaren ildo nagusiak finkatzen ziren. Irakaskuntza pribatuari dagokionez, hainbat aldaketa datoz:

- Eragin eremu berbera egongo da ikastetxe publiko nahiz pribatuarentzat.
- Plaza eskaintza eremuko benetako eskolatzeko beharriari egokituko zaio.
- Administrazioak eremu berberetako plaza libreetara bideratu ahal izango ditu plazarik gabeko ikasleak.
- Ratioak itunpeko irakaskuntzan: Ez dago aldaketarik: Batetik publikoan erabiltzen dituztenak baino txarragoak (5 ikasle gehiago gelako DBHan eta batxilergoan); bestetik murriztailegoak dira taldeak sortzeko (DBHn 17 ikasle beharko dira)

boletina

EHAA 185 2007eko irailak 25

EBAZPENA Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen hitzarmen kolektiboa (2006-2007 urtetarako) erregistratu, gordailatu eta argitaratzea (hitzarmen kodea zk. 8602645).

EHAA 189 2007eko urriak 1

AGINDUA, Haur Hezkuntzan (2. zikloan), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian 2007-2008 ikasturterako ikastetxe pribatuen ituntzea ebazten duena.

EBAZPENA, ikastetxe publiko eta itunpekoetako guraso elkarteek eta helduen hezkuntzako zentro publikoetako ikasleen elkarteek 2007-2008 ikasturtean egingo dituzten ekintzak finantzatzeko laguntzak emateko dena.

EHAA 191 2007eko urriak 3

AGINDUA: euskarazko ikasmaterial inprimatuena, entzunezko ikasmaterialgintzarako softwaregintzarako euskarazko ikasmaterialak laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA I, II, III, IV).

EHAA 192 2007eko urriak 4

EBAZPENA: heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2006-2007 ikasturtean, emandako diru-laguntzak aldatzen dituen

EBAZPENA Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakasleei dei egiten diena enpresetan prestakuntza-egonaldiak egin ditzaten 2007-2008 ikasturtean.

EHAA 194 2007eko urriak 8

AGINDUA, beraren bidez diru-laguntzak deitu dira Euskalit-Kalitaterako Euskal Iraskundearen Ebaluatzaileen Klubak

egindako kanpo ebaluazioetan Bikaintasunaren EFQM Ereduan 300 puntu edo gehiago lortu dituzten itunpeko ikastetxeentzat.

EHAA 195 2007eko urriak 9

AGINDUA Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan lantokiko prestakuntzako (LP) lanbide-modulua egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

EHAA 197 2007eko urriak

11172/2007 DEKRETUA, irakaskuntza euskaraz eman izana eta zein epetan eman zen frogatzeko ziurtagiria arautzekoa, Gizarte Segurantzaren kotizatua modura aitortze aldera.

EHAA 197 2007eko urriak 18

AGINDUA, 2007ko irailaren 6koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2004-2005, 2005-2006, 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetako hezkuntza-itunak 2004-2005 ikasturtean izenpetu eta berritzeari buruzko agindua aldatzeko dena. Itun horiek ikastetxe pribatuekin egitekoak dira, Haur Hezkuntzan (2. zikloa), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian

EHAA 209 2007eko urriak 30

EBAZPENA, bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko jarduerak egiteko diru-laguntzak ematea ebazten duena.

EHAA 218 2007eko azaroak 13

DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko.